

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako irakasleak “Garapenerako irakasleak: sareak sortuz” VIII topaketan izan dira

*Ana Isabel Simon eta Konsue Salinas irakasleek #PubliODS proiektuan sortutako lehen eta bigarren hezkuntzarako argitalpenak aurkeztu dituzte*

Asteartea, 2018.eko maiatzak 15

Nafarroako dozena bat irakasle Guadarraman ospatu den “Garapenerako irakasleak: sareak sortuz” VIII topaketan izan dira, gainontzeko erkidegoetako ordezkariekin batera. Bertan, Ana Isabel Simon eta Konsue Salinas irakasleek #PubliODS proiektuari loturik, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleekin Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) lantzeko sortutako argitalpenak aurkeztu dituzte.

Nafarroako irakasleak gainontzeko adituekin batera landutako #PubliODS proiektuaren barne ikastetxeetan Garapen Jasangarriaren Helburuak ezagutzera emateko [bi argitalpen](#) jaso dira. “Hendere y el derecho a la Educación: las ODS en la escuela” lana lehen hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago eta bertan ipuin, jolas zein abestien bitartez hezkuntzak bizitzaren etapa ezberdinetan duen garrantzia, berdintasuna, zein kalitatezko heziketa lantzeko tresnak eskaintzen dira, besteak beste. Bestalde, bigarren hezkuntzako ikasleentzako “El desafío de los ODS en secundaria: Tú formas parte del reto” lana sortu da; lan honek, irakasleek arlo soziolinguistikoan, zientifiko nahiz teknologikoan GJH-ak ikasleekin lantzeko material didaktikoa zein komikia ditu ardatz.

Nazioarteko Garapenerako Espainiako Agentziak, Hezkuntza, Kirola eta Kultura Ministerioarekin batera antolatutako topaketa honek, Garapen Jasangarriaren Helburuetan sakondu eta Nazio Batuen Erakundeak 2015ean proposatutako 2030 agenda lantzea izan du helburu. Hartara, topaketan zehar irakasleek tailer didaktiko ezberdinetan parte hartu dute garapenerako agenda berriak aztertu eta 17 GJH-etan sakondu, eta helburuak zein indikatzaileak ezagutzeko.